

Liburutegia, askatasun esparrua

PATXI TELLETXEA EZKURRA. Nafarroa Baiko foru-parlamentaria. Horrela izan behar luke: askatasun gunea. Horrela izan da oraintsu arte, UPNk, Erregimeneko alderdiak, Nafarroako liburutegi publikoetan atzaparrak sartu dituen arte. Zein egunkari erosten ahal den eta zein ez ezartzen ari dira Nafarroan, Barañainen hasi eta Iruñera hedatuz beren asmoa.

Zentsura da Barañaingo Kultura zinegotziak egin duena bere herriko liburutegian, zentsura argia, BERRIA eta Gara egunkariak erostea debekatu duenean.

Zentsura ideologikoa, Iruñeko Kultura zinegotziak ere egin nahi duena liburutegi publiko guztietan.

Politikari kaxkarrak teknikari lanetan sartzen direnean edozer gauza gerta daiteke. Zer jakinen dute haiek liburuzainen argudio eta arrazoiez liburutegian egon behar duenaz. Politikari miserable hauek ez dute, ez, teknikarien iritzirik aditu nahi; hagitx modu sektarioan, zentsuraren bidez erabakitzen dute zer irakurtzen ahal den eta zer ez, liburutegi publikoetan. Aniztasunari batere erreparatu gabe eta are gutxiago Unesco bezalako nazioarteko erakundeek esaten dutenari.

Honatx Unescok dioena:

- Liburutegi publikoa tokian tokiko informazio gune bat da, erabiltzaileei mota guztietako ezagupenak eta informazioa emateko dagoena.
- Liburutegi publikoak, berdintasuna oinarritzat hartuz, bere zerbitzuak emanen ditu erabiltzailearen adina, arraza, sexua, erlijioa, naziotasuna, hizkuntza edo giza kondizioa kontuan hartu gabe.
- Zerbitzu eta baliabide bereziak emanen dira zenbait erabiltzaile berezientzako, adibidez, hizkuntza gutxiagotuentzat, ez-gaituak diren pertsonentzat, ospitale zein espetxeetan daudenentzat.
- Liburutegietako zerbitzuak eta funtsak ezin dira ideologia, politika edo erlijioa dela-eta zentsuratu, ez eta behar komertzialak bulkatuta aukeratu. IFLA/Unesco (Public Library Manifesto 1994).

Egunero karrikan dauden komunikabideak legalak dira, eta beraz, bidezkoak; BERRIA egunkaria gainera, mundu osoan egunero ateratzen den egunkari euskaldun bakarra da, hortaz, euskal hizkuntza komunitateak eskubidea du bere hizkuntzan informazioa jasotzeko liburutegian.

Lerro hauen bitartez, nire elkartasuna adierazi nahi diet Nafarroako liburutegietako liburuzain guzti-guztiei, eta batez ere bulkatzen ari diren askatasunaren aldeko kanpainari. Eskubide guztia dute beren lana askatasunez eta duintasunez egiteko. Haiek dira teknikoak, haiek hagitx ongi dakite zer erosi, zer paratu liburutegietan, beren irizpide teknikoei jarraituz, haiek dira, azken finean, gure liburutegietara etortzen diren nafarrak ezagutzen dituztenak.

Horrela hasten da zentsura. Lehenik komunikabide batzuk debekatzen dira, ondoren Erregimeneko Diaria erosten da bakarrik. Bertan gure alkatesaren eguneroko argazkia ikusiko dugu, bere irribarre goxo eta eztiarekin: gaur inaugurazio batean, bihar zaharrekin solasean, etzi bizikleta gainean irribarre kilometrikoarekin.

Bai, bai, Erregimeneko Diaria da hemendik aitzinera irakurraraziko digutena, Nafarroako bunkerraren iritzia karrikaratzen duena: navarrismoa, integrismo katolikoa ereinez egun batean eta bestean. Guztia UPNren loria eta goraipamenerako, hori bai, PSNkoen laguntza miserablearekin, bai Barañainen bai Iruñean.